

## KANALAK

Gure enpresak kanalak edukitzea oso garrantzitsua da, izan ere, gure produktua bezeroengana nola iritsiko den jakin behar dugu. Erabakigarria da bezeroengana bezeroek heuren nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea merkatura balio-proposamen bat eraman eta arrakasta lortzeko.

Hiru kanal mota daude, kanak propioak, elkartutako kanalen bidezkoak eta aurreko bien nahasketa. Ez ditugu kanal propioak erabiliko, izan ere, gure denda propio bat irekitzen badugu zailagoa izango da gure produktua bezeroengana iristea. Horregatik, elkartutako kanalen bidezkoa erabiliko dugu, hau da, gure produktua Platanomelón online dendari emango diogu eta hauek arduratuko dira Espainian zehar zabaltzeaz. Ondorioz, bi kanal hauen nahasketa ez dugu erabiliko, lehen esan bezala ez baitzaigu zaigu komenigarria iruditzen.

Kanal bide mota hau erabailtzen hainbat abantaila eta desabantaila izango ditugu. Abantaila enpresa batekin aliantza bat sortzen badugu, hauek gure produktua online bidez saltzeaz arduratuko direla izango zen. Desabantaila, ordea, enpresa horri ordaindu egin beharko diogula gure proiektua saltzea eta marketina egiteagatik izango zen.